

Etorkinak eta kultura aniztasuna

III.
kapitulua

5

Aurrekariak



Atal honetan, etorkinen eskubideei eragiten dieten Arartekoaren jarduerak jaso dira, euskal administrazio publikoen politiken hartzaile diren aldetik. Gainera, etorkinen eta iheslarien harreraren eta gizarteratzearen eta haien eskubideetan eragina duten ezaugarri eta berritasun esanguratsuenetako batzuk aipatzen dira.

1. Kexarik aipagarrienak

Atal honetan, Ararteko erakundeak izapidetutako kexa batzuk aipatu nahi ditugu, non jatorri nazionalak berebiziko garrantzia izan duen. Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenean EAEn bizi diren migratzaile adingabeek sufritzen dituzten zailtasunen inguruko kexak ere analizatzen dira. Halaber, Arartekoko beste arlo batzuetan ere bildu dira migratzaileei eragiten dizkieten jarduketak eta, horregatik, ezagutza-helburuetarako, horiek ere aipatuko ditugu.

1.1. Jatorri nazionala dela-eta gertatzen den diskriminazioa

1.1.1. Zehar-Errefuxiatuekin izeneko gizarte-erakundeak Arartekoari 2023ko irailean Gasteizko gau-aisialdiko lokal batean gertatu zenaren berri eman zion. Kontatutakoaren arabera, jatorri senegaldarreko hiru mutili ez zieten lokalean sartzen utzi. Une horretan, Ertzaintzan salaketa formala egiten saiatu ziren, baina dirudienez, ez zen inolako atestaturik ireki edo ikerketarik egin. **ACCEMekin** (errefuxiatuen eta migratzaileen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen erakundea) koordinatuta, zenbait salaketa-ekintza egin ziren eta lokalaren jabea Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri zen eta Berdintasun Zerbitzuaren eta Elkarbizitza eta Aniztasun Zerbitzuaren laguntza eskatu zuen. Aipatutako gertakariaren salaketek hedapen eta gizarte-oihartzun handia izan zuten, gizartean nahikoa zabalduta dagoen ideia baita askotan gertatzen direla afrikar jatorria dutenen aurkako jokaera diskriminatzaile errepikatuak aisialdiko establezimendu batzuetan. Horregatik, kaltetuen aldeko elkartasun-keinuak ugaritu egin ziren eta herritarrek salaketa- eta laguntza-ekimen bat martxan jarri zuten, “Derechos sin Reservas” izenekoak. Gainera, **Eraberean** elkarteak **estrategia errestitutiboa** martxan jartzea erabaki zuen. Horretarako, eskaera aurkeztu zuen Arartekoan, alderdien arteko nolabaiteko elkarbizitza errazteko esku hartzearen aukera baloratu zezan, kontuan hartuta hiri osora zabalduta zen arazoa zela eta elkarbizitzari eragiten ziola.

Ararteko erakundeak esku-hartzea onartu zuen eta eraginpeko alderdiei proposatu zien Arartekoaren egoitzan zirkulu errestitutibo bat sortzea. Bertan, gertakari diskriminatzailea jasan zutenek eta gainerako parte-hartzaileek aske hitz egin zuten eta adostasunak finkatu

zituzten etorkizunean horrelakorik berriro gertatu ez dadin. Arartekoak uste du praktika errestauratiboei esker, modu osagarrian erantzuten zaiela askotariko kalteen eta gatazken (auzokoak, diskriminatzaileak, sozialak...) biktimei eta, orain arte, bakarrik prozedura judizial eta administratiboetara jotzeko aukera izan dute. Zirkulu errestauratiboari buruzko informazioa [Arartekoaren 2024ko ekainaren 21eko Ebazpenean](#) jasota geratu zen.

1.1.2. Kexa askotan salatzen da kexagileen ustez beren jatorri nazionala dela-eta **etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituztela eta, batzuetan, ezinezkoa dela etxebizitzak lortzea**. Alokairu-etxebizitzaren eskariak eta oinarrizko behar horri erantzuteko etxebizitza-kopuru urriak zaildu egiten dute etxe egoki eta segurua izatea, eta jatorri nazionala faktore baztertzaila da. Urteak igaro ahala, egoera hobetu beharrean, geroz eta zailagoa da alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko eta horrek oztopatu egiten du gizarte esku-hartzeak gauzatzea edo aprobetxamendu akademikoa eta prestakuntzakoa egitea, osasun-arazoak sortzen ditu eta gizarte-bazterketa egoera areagotzen du.

1.1.3. Aurten izapidetu den kexa bat gai honi buruzkoa izan zen: **ezintasunarengatik kotizaziorik gabeko prestazioaren** eskaera berrikustea eskatzeko agiri gisa pasaportea aurkeztu beharra, nahiz eta urtez urte espainiar nazionalitatea duela aipatu eta, horrez gain, alegatu zuen “ezintasunarengatik kotizaziorik gabeko prestazioa jasotzen duten guztiei ez zaiela eskatzen pasaportea aurkezteko”. Arartekoak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zion [Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralean](#) aitortutako tratu-berdintasunerako eskubidea errespetatze aldera, kotizaziorik gabeko prestazioa berrikusten den espediente guztietan dokumentazio berbera eskatu behar dutela, orain arte horrela jarduten ari ez badira behintzat.

1.1.4. Azkenik, **turismo-establezimendu bateko bezero bati emandako tratu diskriminatzaile eta iraingarria** salatzen zuen kexa bat jaso genuen. Kasu horietan, aurretik turismo-establezimenduan eta, hala badagokio, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean eta [Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo](#) institutuan erreklamazioa egiteko eskatu zitzaion. Arartekoari jakinarazten zaizkion beste kasu batzuetan bezala, ez dakigu ea aurreko erreklamazioak egin diren ala ez eta, horregatik, Arartekoarentzako zailagoa da administrazioak egindako salaketek emandako erantzunen jarraipena egitea.

1.2. Gizarte-prestazioak ukatzea, etetea eta indargabetzea

1.2.1. Arartekoak, [Arartekoaren 2024ko azaroaren 26ko Ebazpenaren bidez](#), Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zion berrikusi zezala **nazioarteko babes eskatzen zuen familia bati bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak (BGDS)** ukatzen zizkion ebazpena. Izan ere, familiak betetzen zuen modu jarraituan eta etenik gabe

eskaera aurkeztu eta gutxienez aurreko urtean legezko etxebizitza efektiboa izatearen baldintza. Arartekoaren usteetan, urtebete baino gehiagoan eta etenik gabe nazioarteko babesaren izapidetze-eskatzailea zenaren egiaztapen-agiria zuenez, familiak betetzen zituen araudiko baldintzak.

1.2.2. Halaber, Arartekoak, [Arartekoaren 2024ko uztailaren 4ko Ebazpenean](#), gomendatu zuen berrikusi zedila **diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE)** eskaera ezesten duen ebazpena eta, ondorioz, gomendatzen zuen baita ere berrikusi zedila **etxebizitzarako prestazio osagarria** ukatzen zuen ebazpena, ez baitzuten zuzenbidea betetzen eta ez baitzuten adingabeen interes gorena kontuan hartu. Arartekoaren iritziz, Lanbidek DSBEren eskaria analizatu beharko luke eta pasaporte berritutik haratagoko bestelako egiaztapen-agiriak onartu beharko lituzke, bizikidetzak-unitateko kideen nortasuna ziurtatu dezaketena.

Kasu honetan, nortasun bat egiaztatzearen ezinezotasuna lotuta dago estatu nazional bateko araudi bat aplikatzearekin, zeinak subiranotasuna duen beste estatu batean bizi diren herritarren pasaporteak berritzea erabakitzeke, baina betetzeko zailak edo ezinezkoak diren baldintzak eskatzen ditu. Espediente honetan, eraginpeko bizikidetzak-unitateak zuzenketa-izapidetari erantzun zion eta dokumentazioa aurkeztea galarazten zioten arrazoiak egiaztatu zituen. Halaber, familia horretan adingabe bat dago eta eskaria ukatu izanak berari ere eragiten dionez, Arartekoak uste du adingabeen interes gorena ere aintzat hartu beharko litzatekeela.

1.2.3. Detektatu dugun beste arazo bat da zaila dela **ukrainar jatorria dutenen jaiotza-ziurtagiriak legeztatzea** gerra-egoera dela-eta. Aurrekoa oztopo handia da agiriak aurkezteko eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

1.3. Familia berrelkartzeko eskubidea egikaritzea

Arartekoak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari jakinarazi zion atzerritarrek familia berrelkartzeko eskubidea egikaritzeko dituzten zailtasunak direla-eta, beharrezkoa dela hausnartzea euskal administrazio publikoek zein modutan lagundu dezaketen. Izan ere, garrantzitsua da etxebizitza bat izatea [Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan](#) aurreikusitako familia berrelkartzeko prozeduran. Gainera, jarduketa-planetan hartutako konpromisoak gogorarazi zituen, zehazki, hemen: [Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana. 2022-2025](#). Plan horretan, neurri programatikoen helburuen artea, honako hauek daude: “*Atzeritar etorkiko, jatorriko eta/edo nazionalitateko pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako biztanleen baldintza beretan*”;

baita ere “Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzari buruzko egungo araudien azterketan laguntzea, eta araudi horiek kulturarteko ikuspegia barnean har dezaten egin beharreko aldaketak bidezko instantziari proposatzea”. Azken aurreikuspen hori oso garrantzitsua da. Izan ere, egungo etxebizitza-araudian ez dira kontuan hartzen atzeritarren beharrak, hala nola familiarekin bizitzea eta familia berrelkartzeko eskubidea eta, ondorioz, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea, modu horretan, ziurtatzeko araudiak familia berrelkartzeko eskubidea egikaritzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen direla.

Arartekoak uste du euskal administrazioek paper aktiboagoa izan beharko luketela EAEn bizi diren atzeritarrei eragiten dieten administrazio-prozeduretan.

1.4. Udal-eroldan izena ematea

1.4.1. Ararteko erakundeak kexa eta kontsulta asko jaso ditu **udal-eroldan izena emateko eta inskribatuta mantentzeko** zailtasunekin lotuta. Zailtasun horiek, hein handi batean, gizarte zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzat eta familientzat **etxebizitza nahikoak eta egokiak** ez egotearekin lotuta daude. Horren ondorioz, gizarte-eroldan inskribatzeko eskari-kopurua asko hazi da. Administrazio-figura horrek etxerik ez dutenei errolatzea ahalbidetzen die eta jakinarazpenak jasotzeko posta-helbidea eskuratzeko dute.

Udal-eroldan izena emateko prozedura arautzen duen eta **gizarte-eroldaren** figura jasotzen duen araudi komun bat egon arren, udalek **askotariko moduetan jarduten dute** izen-emateak kudeatzen dituztenean. Horrek zailtasunak sortzen ditu gizarte-eroldan izena emateko.

Udal-eroldan izena ematea eta inskribatuta jarraitzea halaberharrezko beharra da. Izan ere, ezinbesteko baldintza da gizarte-zerbitzuen euskal sistemara, etxebizitza-sistemara eta diru-sarrerak bermatzeko sistemara sartzeko. Hala eta guztiz ere, Arartekoak esan duenez, exigentzia hori, bizileku efektiboa egiaztatzeko tresna hutsa izatetik urruti dago eta ezinbesteko baldintza bihurtu da oinarritzko gizarte-eskubideak izateko. Beste sistema publiko batzuetan, adibidez, osasunean edo hezkuntzan, errola ez da *sine qua non* baldintza bat. Horrenbestez, hausnartu beharko litzateke baldintza horrek zein eginkizun duen gizarte-zerbitzuak eskuratzeko, diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa egikaritzeko.

1.4.2. Arartekoak Bilboko Udalari gomendioa eman dio, herritar baten udal-eroldako izen-ematean izandako bajaren berrikuspenaren bitartez **2024ko azaroaren 22ko Ebazpena**. Gomendioan proposatu zen **neurri osagarriak ezartzea, bermatzeko** oker egindako izen-emate baten baja-prozeduraren eraginpekoek badakitela **administrazio-jarduketa hori egin dela**, besteak beste, **askotariko komunikazio-bideak erabilita**, eta udaleko Gizarte Ekintza Arloarekin eta Berdintasun, Lankidetzeta eta

Herritarren Arloarekin koordinatuta. Gainera, behar bezala eta hainbat hizkuntzatan, aplikatzekoa den araudiaren berri ematea gomendatzen du (zehazki, udal-eroldan baja emateko prozedurari buruzko araudia), bai eta administrazio-egoera irregularrean dauden atzeritarren eta aldi baterako bizileku-baimenaren titular diren pertsonen kasuan inskripzioa berritzeko betebeharrari buruzkoa ere, beste batzuen artean. Neurri horien helburua da bermatzea herritarrek badakitela zein den administrazio-egintzaren edukia, eta ez izatea nahikoa administrazio-formalitateak betetzea. Administrazio-egintza bat jakinaraztean ahalik eta arduratsuen jokatzearen beharra jurisprudentziak ere partekatzen du, Arartekoaren ebazpenak jakinarazi duen bezala, eta arrazoizkoa da, askotariko komunikazio-bideak baitaude.

Bilboko Udalak erantzun zuen Ararteko erakundeak bermeak muturreraino eramateko egindako iradokizunak aintzat hartuko zituela. Hala eta guztiz ere, ez du baja berrikusiko. Horrenbestez, Arartekoak uste du gomendioa ez dela onartu.

1.4.3. Arartekoak, **2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren** bidez, Bilboko Udalari gomendatu zion **berrikusi zezala behin-behineko administrazio-baimena zuen migratzaile baten eroldan egindako baja**, errola iraungi izana deklaratzeko duen ebazpena jakinarazteko prozeduran hutsuneak detektatu baitziren. Halaber, gomendatu zion informaziorako eta ezagutzarako neurri osagarriak ezar zitzala, adibidez, komunikaziorako kanal osagarriak (telefonoa, posta elektronikoa...) erabili ditzala, ziurtatzeko eroldako izen-ematea berritu behar dutenek badakitela zein den egin beharreko prozedura eta balitekeela baja-prozedura hastera eroldako izen-ematea iraungi izanagatik. Azkenik, gomendatu zen familia horretan adingabeak egonez gero, zuzen ebaluatu dadila adingabeen interes gorenean sor daitekeen eragina bere gurasoak eroldan bajan emateko neurriak ezartzen direnean.

Bilboko Udalak udal-eroldan bajan emateko prozeduraren izapidetzea zuzen jakinarazten dela ziurtatzeko ezarritako neurriak informatu zituen. Aurretiko entzunaldi-izapidea nahitaezkoa ez den arren, udalak aurretiaz jakinarazten du iraungitzeagatik baja-prozedura hasiko dela.

Arartekoaren ustez, errola berritu ez izanagatik urtebetean erregistratu ziren 467 bajak asko dira eta bereziki aztertu behar dira. Batez ere, kasu honetan bezala, non Bilboko etxe berean errolatzeko izapidea egin zen berriz ere. Bertan bizi ziren bere alaba eta anaia, eta horrek baieztatu egiten du benetako bizilekua zela. Gauzak horrela, eta adingabeen interes gorena aintzat hartuz, arrazoizkoa dirudi neurri osagarriak ezartzea bermatzeko eraginpekoak zuzen informatuak direla garaiz eta behar bezala errola berritzen ez dutenean sor daitezkeen ondorioen inguruan.

Horretarako, Arartekoak proposatu zuen egungo neurrien eraginkortasuna ebaluatzea eta informazio- eta komunikazio-kanal efizienteagoak ezartzea, hala, udal-errola iraungi izanagatik bajan prebentzioa hobetzeko.

1.5. Udaleko gizarte-zerbitzuen gizarte-arreta

1.5.1. Ararteko erakundeak jakin du migratzaileek zailtasunak dituztela **etxebizitza seguruak eta egokiak eskuratzeko**. Migrazio-fluxuak gehitzen ari dira eta hori udaleko gizarte-zerbitzuen erantzuna baldintzatzen ari da; azken horiek **gizarte- eta egoitza-bazterketa** egoeran dauden askori lagundu behar diete. 2012tik aurrera egin diren kontaketek eta diagnosiek egiaztatu dute etengabe gehitzen ari dela EAEn etxerik ez dutenen kopurua. Pertsona horiek ostatu informaletara jotzen dute edo pabiloiak eta espazio publikoak okupatzen dituzte eta premiazko udaleko gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzen dute. Arartekoak hainbatetan esan du inor etxetik kaleratu baino lehen, arazoaren gizarte-dimentsioa analizatu behar dela.

1.5.2. 2024an Arartekoak **ofizio-jarduketa** bat hasi zuen Donostiako Udalari zuzenduta. Izan ere, Martuteneko eraikin batean etxerik ez zuten 56 pertsona bizi ziren eta polizia identifikatu egin zituen. Gehienak egoitza-bazterketa egoera larrian zeuden migratzaileak ziren. [Arartekoaren 2024ko abenduaren 3ko Ebazpenaren](#) bidez, ondorioztatu zen bestelako neurriak ezarri gabeko polizia esku-hartzeak ez duela etxe-faltaren arazoari erantzun integrala ematea errazten. Horren ordez, Arartekoak plan eta programa estrategikoak benetan aplikatzearen alde egiten du; adibidez, [Bizitegi Bazterketa Larriaren aurkako II. Euskal Estrategia \(2024-2028\)](#) eta [Herriartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana \(2022-2025\)](#). Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak 2019ko azaroan onetsi zuen [Migratorako Euskal Itun Sozialak](#) toki-eremuaren garrantzia nabarmentzen du, harreraren, laguntzaren, zerbitzuak ematearen eta kulturen arteko bizikidetzaren eremuan. Aurrekoarekin lotuta, alor horretan egiten diren esku-hartze guztietan bermatu behar da sustatzen ari diren politika publikoak (harrerako euskal eredua, Trapezistak programa...) koherenteak direla eta sistema publikoek eta administrazio eskudunek koordinatuta lan egiten dutela.

1.6. Herriaren Defendatzailearen bulegora bidalitako kexak

1.6.1. Aberrigabezia Estatutuaren eskaerak atzeratzea. Herriaren Defendatzailearen bulegora zenbait kexa bidali dira jatorri sahararrek pertsonen egindako aberrigabezia-eskarien ebazpenak atzeratuta daudelako. Eskuragarri dugun informazioaren arabera, jatorri sahararreko pertsonen aberrigabezia-estatutuko eskarien espedienteak oso atzeratuta daude. Atzerapen horiek gizarteratze-prozesuak oztopatzen dituzte, hezkuntza- edo osasun-programetan parte hartzeagatik euskal gizartearekin errotutako loturak dituztela egiaztatzen dutenean.

1.6.2. Administrazio-izapideak egiteko hitzorduak eskuratzeko zailtasunak. Ararteko erakundeak hainbat kexa jaso ditu nazioarteko babes-eskaerekin, bizileku- eta lan-baimenekin, eta atzeritarren identifikazio-txartelak

(AIT) ematearekin lotutako administrazio-izapideak egiteko hitzorduak eskatzeko zailtasunen inguruan. Arazo hori **“Aholku Sarea”** Atzeritarren Arreta Juridikoko Euskal Sarearekin kontrastatu da. Hauek dira detektatu diren arazo nagusiak: administrazio-baimenekin lotutako aurrez aurreko izapideak egiteko hitzordu telematikoak eskuratzeko atzerapenak eta zailtasunak eta salatutako beste praktika bat, ezen, hitzordu horiek hartu eta saltzen direla; atzerapen handiak hatz-markak hartzeko eta AIT txartelak emateko; zailtasunak nazioarteko babes-eskaerak aurkezteko (horrek larriki kaltetzen du asilo-eskubidea egikaritu ahal izatea); zailtasunak nazionalitate-zina egiteko erregistro zibilean hitzorduak eskatzeko; prozedura elektronikoak ezartzea (hala nola Mercurio plataforma) hasierako eskariak, berritzeak eta errekurtsioak egiteko, araudi-oinarri nahikorik gabe; Apodera platforman ahaldu gisa izapideak kudeatzeko maiz gertatzen diren arazoak eta, azkenik, IP helbideak eraginkortasunik gabe blokeatzea (hitzorduak ez pilatzeko diseinaturik dago, baina arazo osagarriak sortu ditu).

Ararteko erakundeak arazo horiek jakinarazi dizkio Herriaren Defendatzailearen bulegoari eta azpimarratu du **kudeaketan ezberdintasunak daudela kokapenaren** (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta **izapide-motaren** (atzeritarren bulegoak, polizia nazionalaren polizia-etxeak, erregistro zibilak...) arabera. Herriaren Defendatzaileak egindako jarduketak informatu zituen. Horietan, gomendatu zuen beharrezkoa dela oinarritzko izapideak egiteko aurrez aurreko arreta bermatzea eta 65 urte baino gehiagokoek, arrakala digitala sufritzen eta desgaitasuna dutenek, edo larrialdi-egoeran daudenek aurretiko hitzordurik hartu gabe aurrez aurreko arreta jasotzen dutela ziurtatzeko neurriak garatzea. Giza baliabideak gehitzea eta atzeritarren bulegoen kudeaketa hobetzea ere gomendatu zuen, horrela, herriaren eskariei zuzen erantzuteko. Arartekoaren ustez, salatutako egoerak oztopatu egiten du atzeritarrek beren eskubideak egikaritu ahal izatea, babesgabe uzten ditu eta profesionalak kontratatu behar izaten dituzte administrazio publikoarekin jarduteko.

1.6.3. Beste urte batzuetan bezala, Arartekoak Herriaren Defendatzailearen bulegora jatorri atzeritarra dutenek **oinarritzko kontu korrante bat irekitzeko** dituzten oztopoen inguruko kexak bidali ditu. Herriaren Defendatzaileak 2024an **txosten berezi bat** argitaratu zuen: “Finantza-inklusioren erronkak: banku-zerbitzuak eta pertsona zaurgarriak”. Bertan, arazo hori analizatu zen eta 32 gomendio eman ziren hauei zuzenduta: Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritza, Espainiako Bankua, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (CNMC) eta Kapital Zuriketa eta Arau-hauste Monetarioak Prebenitzeko Batzordearen Zerbitzu Exekutiboa (SEPBLAC).

1.7. Txosten honetako beste atal batzuetan jasota dauden eta migratzaileekin lotuta dauden jarduketan laburpena

Adingabe atzeritarrei lotutako kexak **Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoaren Txostenean** jaso dira. Arartekoaren

hainbat arloetan ere migratzaileei eragiten dieten arazoak landu dira, adibidez, **Etxebizitza Arloan** edo **Preso dauden Arloan**. Horren inguruan, **Arartekoaren 2024ko urriaren 23ko Ebazpena** eman zen. Bertan, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Giza Eskubideen Sailari iradoki zion Espetxe Kudeaketako Eskuliburua aldatzeko, modu horretan, irizpide bateratu bat ezartzeko behin-behineko askatasuna edo hirugarren mailako erdi-askatasunaren araubidea eskuratzen duten atzerritarrei identifikazio-dokumentazioa emateko. Hala, EAEko espetxe guztietan aplikatuko litzateke, Arabako Espetxean egiten den bezala. **Osasun Arloan**, aurten ere jakinarazi egin ziren migratzaile helduek eta administrazio-egoera irregularrean dauden umeei OTI txartela eskuratzeko dituzten arazoak. Azkenik, **Hezkuntzaren Arloan**, migratzaileei eragiten dieten bestelako jarduketak batzuen artean, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari **2024ko uztailearen 8ko Ebazpenaren bitartez** gomendatu zion har ditzala beharrezkoak diren neurriak ez dadin diskriminazio- edo tratu-desberdintasun egoerarik gertatu ikasleak Haur Hezkuntzako D ereduko geletan euskararen ezagutza-mailaren eta familia-ingurune erabileraren arabera banatzearen ondorioz. Arartekoaren ustez, Haur Hezkuntzako ikasgeletan ikasleak lehen adierazitako hizkuntza-irizpideen arabera taldekatzea diskriminatzailea da eta justifikatu gabeko tratu-desberdintasuna sortzen du, zeina ordenamendu juridikoaren aurkakoa den eta hezkuntza-arloko araudiaren espiritua, printzipioak eta helburuak urratzen dituen.

2. Arau- eta gizarte-testuingurua

2.1. Gizarte-testuingurua: 2024an migratzaileen egoeraren inguruko datu garrantzitsu batzuk

Eustaten **biztanleria-eroldaren** arabera, 2024ko urtarrilaren 1ean EAEn bizi ziren eta atzerriko herrialdeetan jaio ziren herritarrek 298.422 ziren (biztanleriaren % 13,5), eta horietatik 217.489k atzerriko nazionalitatea zuten (biztanleriaren % 9,9). Atzerrian jaio zirenen ehunekoa estatuko ehunekoa baino txikiagoa da (% 16,9), baita biztanleria osoaren ehunekoarekin (% 14) alderatuta ere. Horietatik % 49,8 emakumeak dira. Gehienak latino-amerikarrak dira (% 46,3), nagusiki Kolonbia, Nikaragua, Honduras eta Paraguaiak eta, kasu honetan, gehienak emakumeak dira. Ondoren, Afrikako herrialdeak daude (% 24,6), Maroko, Aljeria, Senegal eta Nigeria, baina kasu horretan, gizonak dira nagusi. Intereseko datu bezala, atzerritarren kopuruak hazten jarraitzen du eta zaurgarritasun-egoera dela-eta, esanguratsua da familia-erreferenterik ez duten atzerriko adingabeen eta gazteen kopurua hazi izana.

Hirugarren urtez jarraian, Espainian **asilo-eskatzaileen** kopuruak aurreko urteko zifrak gainditu ditu eta 2024an

nazioarteko babeserako 167.366 eskari aurkeztu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoan ere gehitu egin dira eta 6.153 eskari erregistratu ziren, ikuspegiren **Panoramika 93ren** arabera.

Lanari dagokionez, estatuan 2,9 milioi atzerritar daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, hau da, langile guztien % 13,6 eta autonomo guztien % 16. **Ikuspegiren** 2024ko abenduko **panoramika** EAEko lan-eremuko atzerritarren ingurukoa izan zen eta ondorioztatu zuten jatorri atzerritarreko % 66,2 landunak direla, % 22,6 ez daudela aktibo eta % 14,7 langabe daudela. Jatorri atzerritarreko hamar pertsonetatik zazpi zerbitzu-sektorean lan egiten dute (sektore horretan emakumeak dira nagusi) eta eraikuntza- eta industria-sektorean gizonak dira gehienak.

Gizarte-laguntzak jasotzen dituzten migratzaileen kasuan, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren arabera, bakarrik diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenen % 5,7 daude administrazio-egoera irregularrean. Hau da, 2024an batez beste irekita zeuden 58.098 espedienteetatik apenas 3.318 dira herrialdean irregularlari dauden pertsonenak.

Beste alde batetik, Frontexen **txostenak** aurten ere jarraitzen du erakusten **gehitzen ari direla** Afrika mendebaldeko ibilbidetik, Kanariar Uharteetarakotik (46.817 pertsona, % 18 gehiago) eta Mediterraneo mendebaldekotik (17.026 pertsona, % 1 gehiago) datozen pertsonak. Aurten, **Caminando Fronteras erakundearen** 2024ko bizitzarako eskubidearen monitoretza-**txostenak** salatu du 10.457 pertsonak galdu zutela bizia Europaren eta Afrikaren arteko mendebaldeko mugan, horien artean 421 emakumek eta 1.538 haurrek eta nerabek, eta heriotza gehien gertatu diren urtea izan da. Erakundeak salatzen dituen kausen artean daude laguntza ematearen betebeharra ez betetzea eta mugak kanpora ateratzea. **Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak** “**Desagertutako migratzaileak**” proiektuan jaso zuen 2024an 2.333 pertsona hil zirela Mediterraneoko ibilbidean eta 2.113 Afrikakoan. Beste urte batez ere, informazio hori azpimarratzen dugu, guztiz etsigarria baita.

Azkenik, berriz ere azpimarratu behar da 2023ko **Euskadiko gorroto-istiluei buruzko azken txostena**. 2024ko ekainean argitaratu zen eta **Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak** egin zuen. Oraindik ere nabarmentzen du, erregistratutako gertakarien artean, lesio, mehatxu eta derrigortze arrazista eta xenofoboaren prebalentzia dagoela.

2.2. Araudiak: berritasun nagusiak

2.2.1. European eta nazioartean

2024ko maiatzaren 14an EBren Europako Kontseiluak **Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Hitzarmena** onetsi zuen. Araudi-multzo berria da eta pertsonen desplazamenduetatik eratorritako erronei batera erantzutea da asmoa. Asiloa eta Migrazioa kudeatzeko araudi berri bat du, asilo-prozedura komunarekin eta

nahitaezko banaketa- eta elkartasun-sistemeekin. Gainera, muga sartu aurreko eta itzultzeko kontrol-prozedura bat ere badu. Aurrekoaz gain, Bifinkatze eta Onarpen Humanitarioko Esparrua ezartzea aurreikusi du; Europan sartzeko legezko bide seguru bakarra izango litzateke. Hitzarmenean migrazio-krisirako eta ezinbesteko egoeretarako neurriak aurreikusteaz gain, erabaki bat hartu zen EBko informazio-sistemen elkarrengarritasunerako poliziaren, arlo judizialaren, asiloaren eta migrazioaren gaitan. Migraziorako eta Asilorako Europako Hitzarmena onetsi izanak eta migratzaileak, kanporatuak izateko zain daudela, EBko mugatik kanpoko zentroetan hartzeko aukerari buruzko [eztabaidak](#), agerian uzten dute Europako politika migrazio-fluxuak kontrolatzera bideratuta dagoela eta hori zalantzan jarri da, giza eskubideetan eragiten baitu.

2.2.2. Espainiar estatuan

- Aurten [azaroaren 19ko 1155/2024 Errege Dekretua](#) onetsi zen. Horren bidez onesten da atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei eta gizarteratzeari buruzko [4/2000 Lege Organikoa](#). Araudi berriak aldaketa handiak ezarri ditu errotzearekin, jatorrian egiten diren kontratazioekin, enplegua bilatzeko bisatuekin, ikasteko egonaldiekin, familia berrekartzeekin eta abarrekin lotuta, beste berritasun batzuen artean.
- 2024ko apirilaren 9an, Kongresuak gehiengo absolutuarekin onetsi zuen, parlamentu-izapidearekin jarraitzeko, [Erregularizaziorako Lege Ekimen Herrikoa](#). Proposamen horren asmoa Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa artikulua bakarrean aldatzea da.
- EAEko atzeritarren bulegoetan administrazio-izapideak egiteko duen inpaktuarengatik aipatu behar da [SEM 1/2024 Jarraibidea](#) onetsi izana. Horrek, atzeritarren bulego guztietarako irizpideak bateratzen ditu subjektu legitimoei, agertze pertsonalei eta atzeritarren arloko prozeduretan eskariak egiteko ordezkartzari dagokienez.

2.2.3. Euskal Autonomia Erkidegoan

- Interesekoa da [53/2024 Legez besteko Proposamena](#), Europako erakundeek migrazio- eta asilo-politiketan hartutako norabidea arbuizaten duena (Osoko Bilkuraren erabakia). Eusko Legebiltzarrak Europako erakundeek eskatu die, ekimenen ardatz zentral gisa giza eskubideak hartuta, ekintza hauek gauzatzeko: “a) *Europako elkartasuna indartzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetan inbertsio ekonomikoko programak garatuz eta herrialde horiekiko garapenerako lankidetzara baliabide gehiago bideratuz. b) Segurtasun-neurriak areagotzea, immigrazio irregularra prebenitzeko eta mafien eta pertsonen trafikoaren aurka borrokatzeko. c) Migrazio zirkularreko politikak garatzea, kupoei buruzko legeak eginez EBko herrialde guztiekin. d) Jatorrizko herrialdeekin bisa-sistema indartzen jarraitzea, immigrazio erregularra bultzatzeko”.*

- Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek [eskuliburu](#) bat aurkeztu dute toki-erakundeek harrera-zerbitzua ([Harreragune](#)) izan dezaten. Harrera-zerbitzu hori udalerrian benetan bizi direnei zuzenduta egongo da eta ez da beharrezkoa izango udal-eroldan izena eman izana egiaztatzea. Zerbitzu horrek orientabideak emango ditu gizarteratzeko eta gizartean, politikan eta ekonomian parte hartzeko existitzen diren zerbitzuen eta prestazioen inguruan. Bilbon badago [Harreragune](#) bat eta 2024an martxan jarri den lehenengoa izan da.
- Eibarko Udalak, 2024ko urrian, [jarduketa-protokolo](#) bat onetsi zuen gertakari arrazistak, xenofoboak, ijitoen aurkakoak eta LGBTIfobikoak gertatzen direnean erakundeek jarduketa diskriminatzaile horiei erantzuteko.
- Berritasun gisa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen [urriaren 29ko 320/2024 Dekretuak](#) aurreikusi du Migratzaileak Hartzeko eta Integratzeko Zuzendaritza bat sortuko dela.
- 2024an atzerriko unibertsitate-tituluen homologazioa eskualdatzeko erabakia hartu zen, autonomia-fasean nazioarteko babesaren onuradunen harrera kudeatu zen eta atzeritarrentzat lan-baimenak emateko lagapenean eskumenak eskuratu ziren. Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salako laugarren sekzioak, [2024ko uztailaren 23ko autoaren](#) (470/2024 errekurtsioa)² bidez, kautelaz eten zuen Atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako tituluak Espainiako unibertsitate-titulu ofizial batera homologatu eta baliokidetzeko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion apirilaren 9ko 366/2024 Errege Dekretuaren indarraldia.
- Agente publikoen (foru-aldundiak) eta gizarte-agenteen jarduketetan duen inpaktua dela-eta, beste intereseko epai bat [331/2024 epaia da](#),³ Auzitegi Gorenaren bosgarren sekzioaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2024ko otsailaren 28koa. Horren bidez, onetsi egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Gorenaren epai baten aurka jarritako errekurtsioa. Auzitegi Gorenak gogorarazten du baliabide ekonomikoen nahikotasunaren baldintzaren doktrina (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren apirilaren 20ko 197.2.a artikuluan jasota dago. Horren bidez, onartu egiten da 4/2000 Lege Organikoaren Araudia, Espainian dauden atzeritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzkoa, 2/2009 Lege Organikoa aldatu zuena) interpretatzean, kontuan hartu behar dela gizarte-laguntzak jasotzearen bitartez integratu daitekeela. Arartekoaren [“Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin”](#) txostenean analizatu zen gazteek gizarteratzean sufritzen ari diren zailtasun hori.

2 ECLI:ES:TS: 2024:10360A

3 ECLI:ES:TS: 2024:1014

- Azkenik, interesekoak direlako, hauek aipatu behar dira: Eusko Jaurlaritzaren [programa](#), migratzaileen gizarte- eta lan- inklusiorako. Hori guztia gizarte-errotzearen bidez egingo da eta administrazio-egoera irregularrean dauden erregularizazioa eta Lanbidek aitortzen dituen profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzea errazten du.

3. Arloko beste jarduera batzuk

3.1. Azterlanak eta txostenak

- ✓ **Arartekoaren “Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin” azterlanaren jarraipena**

Arartekoak etengabeko jarraipena egiten dio 2022ko azterlaneko gomendioak betetzeari, arlo horren inguruan jasotzen dituen kexen bitartez. 2024an jaso ziren kexetan gure hirietan bizi diren gazte migratzaileen egoera salatzen zen. Gazte horiek Trapezistak programan parte hartzeko itxarote-zerrendan sartzen dira. Programa horretan, familiaren laguntzarik ez duten gazteei gizarteratzen eta helduarora igarotzen laguntzen zaie. Programa horretan plaza bat ematen zaien bitartean, gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuetara jotzen dute, nagusiki, Bizkaian eta Gipuzkoan. Trapezistak programari esker, gazte askok prestakuntza-prozesuak eta gizarteratzekoak hasi ahal izan dituzte, baina itxarote-zerrendak daude oraindik ere. Horregatik, Arartekoak familia-erreferenterik ez duten gazteen kexak jasotzen jarraitzen du. Gazte horiek ostatu seguruak eta egokiak behar dituzte eta gizarte-laguntza eman behar zaie gizarteratzeko eta bazterketa-egoerak ekiditeko.

3.2. Bilerak administrazioekin, erakundeekin eta elkarteekin

- ✓ **Bilerak elkarteekin**

3.2.1. Arartekoak 2024an zenbait bilera izan ditu [Aholku Sareko](#) elkarteekin, atzeritarrek egindako **administrazio-baimenen eta nazioarteko babeserako eskariak izapidetzeko dituzten zailtasunen** inguruan. Elkarteek Arartekoari jakinarazi zioten oztupoak dituztela ohiko prozeduretara jotzeko, aurretiko hitzorduak hartu behar baitituzte eta prozedura elektronikoa ezarri baitzen administrazio-prozedurak izapidetzeko. [SEM 1/2024 Instrukzioa](#) aplikatzean, bakarrik Mercurio plataforma erabili ahal izatea ahalbidetu da, baina ezin da erregistro elektronikora, erregistro fisikoetara edo posta arrunteko bestelakoetara jo, araubide berezitzat jotzen dutelako.

Hori dela-eta, harreman elektronikoak kanporatzen ari dira eta ez da modu egokian ebaluatzen zer den prozedura elektronikoak eskubideen egikaritzean txertatzea, eta ez da laguntza egokirik ematen erabilera errazteko, eta horren ondorioz, ukatze asko eta babesgabetasun-egoera ugari gertatzen dira.

Zailtasunak detektatu dira baita ere gidabaimenak trukatzean eta goi-mailako hezkuntzako tituluak baliozkotzean.

3.2.2. Arartekoak bilera bat izan zuen [Gipuzkoako Sos Arrazismoa](#) elkartearekin. Bileraren helburua Donostia inguruko egoera kezkagarria aztertzea izan zen. Bertan, **ostatu-baliabiderik ez duten edo jateko laguntzarik jasotzen ez duten pertsona asko** hartzen dituzte eta guztiak ere gizarte- eta egoitza-bazterketa egoeran daude. Jateko beharrari erantzuteko, herritar-talde bat antolatu egin da eta pertsona horiei janaria ematen diete. Bileran, Arartekoari esan zioten banaketa-zona batean bizilagun batzuek segurtasun-eza salatu zutela. Arartekoari esan zioten gazte atzeritar askok zailtasunak dituztela, ez baitute lo egiteko lekurik eta oinarritzko beharrak ez baitituzte estalita.

3.2.3. Arartekoak zenbait bilera egin ditu [Ongi Etorri Errefuxiatuak](#) taldearekin eta **Bilbon eta inguruetan bizi diren eta etxerik ez duten** eta gizarte-larrialdien udal-zerbitzuek kudeatzen dituzten oinarritzko programetan parte hartzea eskatu duten **pertsonek arazoak** tratatu zituzten, baita erroldak gizarteratze-prozesuak hasteko duen garrantzia ere.

- ✓ **Erakundeekin egindako bilerak**

Arartekoko langileek zenbait bilera egin zituzten **Herriaren Defendatzailearen bulegoarekin** hitzordu telematikoak eskuratzeko arazoekin, nazioarteko babeserako eskariak aurkezteko hitzorduen atzerapenekin eta aurrez aurreko arreta eskuratzeko zailtasunekin lotutako arazoak lantzeko; horien guztien ondorioz, prozedura elektronikotara jo behar izaten da nahitaez eta profesionalak kontratatu behar izaten dira administrazio-izapideak egiteko. Arazo hori jada aipatu da atal honetako beste epigrafe batzuetan. Bilera horietan eztabaidan jarri zuten [SEM 1/2024 Jarraibideak](#) ordenamendu juridikoa betetzen ote duen. Horren ondorioz, ezarri zenetik Gipuzkoan ez da posible udaletako erregistro elektronikotara eskariak aurkeztea. Arazoa arintzeko martxan jarritako neurriak nahikoak ez direla ere aipatu zen.

3.3. Erakunde-adierazpena

Aurten, Arartekoak [erakunde-adierazpena](#) egin zuen **Migratzaileen Nazioarteko Egunean**. Arartekoak giza eskubideen unibertsaltasuna defendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoa anitza, orekatua eta kohesionatua izan dadin, non bakoitzaren jatorria gorabehera, herritar guztiek, baldintza-berdintasunean, bizi hobia izateko asmoa izan dezaketen, hala, euskal gizarte osoaren ongizateari lagunduz.

4. Arloko jardueraren laburpena

4.1. Arartekoak migratzaileei eragiten dieten kexak izapidetu ditu eskubide sozialekin lotutako arloetan, batez ere, Gizarteratzean, Hezkuntzan, Osasunean eta Etxebizitzan, bai eta Justizian eta Segurtasunean ere.

Arlo horietako araudiak ez du jatorri nazionalarengatik edo administrazio-egoerarekiko ezberdintasunik egiten, desgaitasunari eta menpekotasunari lotutako prestazioetan eta zerbitzuetan ez ezik; egoera horiek migratzaileek ere sufritzen dituzte. Hala eta guztiz ere, **migratzaileek zailtasun gehiago sufritzen dituzte** komunitate-sarea nahikoa ez delako, hizkuntza-interpretazioko eta arrakala digitaleko arazoak dituztelako edo diskriminazioa sufritzen dutelako. Zailtasun horiek areagotu egiten dira emakumeen kasuan, tratu- eta diskriminazio-desberdintasuneko arrazoiak zeharkatzen dituztelako.

Hala ere, elkarte-sareek eta euskal erakundeek sustatutako tresnetan agerian jartzen den bezala, gaur egun fenomenoak ezagutzen dugu eta diseinatutako neurriek gizarte kohesionatu batean aurrera egitea ahalbidetzen dute. Arartekoak positibotzat jotzen du euskal erakundeek **ezagutza-sarea, programak eta baliabideak** eraikitzeke egindako esfortzua. Sare horrek **aurrekontu nahikoa** jaso beharko luke migrazio-fluxuak gehitu izanagatik eta nazioarteko babesaren behararengatik sortutako gizarte-behar berriei erantzuteko. Oinarrizko beharrak estalita ez dituzten geroz eta atzerritar gehiago daude kaleetan eta, horregatik, administrazio publikoak *ad intra* eta *ad extra* kolaboratu behar dute eta koordinatuta egon behar dira. Beste modu batera esanda, eskariak gainditu egiten du udaletako gizarte-zerbitzuen jarduketara-aukerak.

4.2. Euskal gizartearen anitza da eta atzerritar egoiliarak geroz eta gehiago dira. Horregatik, atzerritarren kopurua eta gizarte-behar berriak kontuan hartu behar dira. **Etxebizitza nahikorik ez egotea** errealitate bat da eta bizitzako askotariko alderdiei eragiten die (osasuna, hezkuntza, lana, harremanak, aisialdia...) eta familian bizitzeko, familia-intimitaterako eta familia berrelkartzeko eskubidea zailtzen du, araudiko baldintzak bete ezin dituztelako; betekizun horiek ez dituzte kontuan hartzen etxebizitza-eskasia eta prezio garestiak.

4.3. Aurten aurrera egin da **EAErako transferentziak** adostearen prozesuan. Horiei esker, prestazioak eta zerbitzuak kudeatu eta erabakiak hartu daitezke, hala nola unibertsitate-tituluak homologatzean (une honetan Auzitegi Gorenak kautelaz etenda du), autonomia-fasean nazioarteko babesa dutenak hartzeko kudeaketan, eta lan-

baimenak emateko eskumenean. Hala, gizartean, lanean eta ekonomian integratzeko prozesuak errazteko politika publikoak koherenteagoak izango dira.

4.4. Kexa askotan azaltzen dira **udal-erroldan izena emateko eta inskripzioa mantentzeko zailtasunak**. Baldintza hori *sine qua non* da gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak eskuratzeko. Atzerritarrek zailtasunak dituzte erroldatzeko baldintzak betetzeko, ez baitute etxerik edo baliozko helbiderik udal-erroldan izena emateko. Hori dela-eta, errolda-eskari faltsuak edo gizarte-erroldak aurkeztu dira, nagusiki, erabakitzeke irizpideak ezarri dituzten udaletan. Arartekoaren ustez, beharrezkoa da hausnarketa egitea gizarte-eskubideak eskuratzeko udal-erroldan izena eman behar izatearen inguruan, ikusirik zer-nolako zailtasunak dauden. Arartekoak, gainera, gomendatu du erroldan baja emateko prozeduretan komunikazioa indartzeko, hala, ekiditeko benetan EAEn bizi direnei erroldan bajaran ematea.

4.5. Arartekoak *“EAEko diskriminazioaren aurkako politika publikoak”* azterlaneko gomendioak gogorarazten ditu, eta dio beharrezkoa dela neurri espezifikoak ezartzea arrazismoaren aurka borrokatzeko eta giza eskubideen kultura defendatzeko. Gainera, aurten, Arartekoak diskriminazio-jarduketa salatu zen gertaera batean esku hartu zuen eta zirkulu errestauratiboa sortzea proposatu zuen.

4.6. Ararteko erakundeak hainbat kexa jaso ditu **oinarrizko administrazio-izapideak egiteko hitzorduak lortzeko arazo**en inguruan, adibidez, nazioarteko babes-eskaerak, bizileku- eta lan-baimenak, eta atzerritarren identifikazio-txartelak (AIT) ematea, eta Herriaren Defendatzailearen bulegora bideratu zituen. Halaber, zenbait bilera egin zituen EAEn bizi diren atzerritarrei eragiten dien salatutako arazoa analizatzeko. Arazo horiek guztiak ez datoz bat administrazio egokirako eskubidearekin eta administrazio publikoarekin zer-nolako harremana izan nahi den aukeratzeko eskubidea urratzen dute.

4.7. 2024an, berriro ere **giza tragedia oso larriak gertatu dira Europarako migrazio-ibilbideetan**. Arartekoak bat egiten du Europako Herriaren Defendatzailearekin eta dio beharrezkoa dela itsasoan bizitzak salbatzeko operazioak indartzea. Arartekoa bezalako giza eskubideen defendatzaileentzako nahitaezkoa da erreklamatzeko **legezko migrazio-bide seguruak ezarri beharra**. Halaber, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea **Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Hitzarmen** berria aplikatzen denean. Bertan, politika komuna ezartzen da immigrazioan eta asiloan, eta EBren fundazio-balioetan errotuta egon behar da.